


ARAUJO ETA ZAZHYREN ABENTURA ESPAZIOAN

3.308. urtean, espazioko leku urrun batean, Araujo eta Zazhy izeneko astronautak bizi ziren espaziontzian batean.

Espaziontzia hau berezia zen: bere lana Lur planeta meteoritoetatik babestea zen.



Tibuk-2 espaziontziak radar haundi bat zeukan meteoritoak detektatzeko. Meteorito bat lurrera hurbiltzen bazen, motorrak pizten zituen eta meteoritoak desbideratzen zituen.



Araujo, mutil txikia eta ausarta zen, burdinezko robot esku bat zuen.

Zazhy, neska handia eta jakintsua zen. Bi lagunak lana Lurra zaintzea eta espazioko meteoritoetatik salbatzea zen.



Gau batean, Araujo eta Zazhy espaziontzian zeudela, bapatean alarma guztiak jotzen hasi ziren. Zazhy ohetik jeiki eta espaziontziko kabinara joan zen ziztu bizian.

Kontrol paneleko argi guztiak gorri zeuden. Lehiotik begiratu eta meteorito erraldoi bat ikusi zuen abiadura bizian Lur planetaruntz joaten.

Gutiz beldurturik, Zazhyk Araujo esnatu zuen gertatzen zenaren berri emateko.

- Meteorito hau lurrera iristen bada, Lur planetaren amaiera izango da!!!-esan zuen Zazhyk.
- Abisua bidali behar dugu Lurreko kontrol zentrora!!-esan zuen Araujok.
- Bai, baina zerbait egin behar dugu lehenbailen, denbora gutxi daukagu!!!-esan zuen Zazhyk.
- Ideia bat daukat!! Ilargian izkutatuta daukagun robota erabliko dugu mundua salbatzeko.-esan zuen Zazhyk.



Berehala joan ziren robotaren bila. Robotaren barruan sartu, suziri motorrak martxan ipini eta espaziora atera ziren meteoritoaren bila.


Meteoritoa Lur planetatik gero eta gertuago zegoen. Larrialdi egoera larrian zeuden!

Robotaren motorren potentzia ahalik eta gehien handitu zuten. Meteoritoaren ondoan kokatu eta laser indartsu batekin apurtu zuten milaka zatitan.

- Lortu dugu!!!-esan zuten bi lagunek saltoka eta ospatzen zoratzen.

Robota gorde ondoren, espaziontzira bueltatu ziren eta festa bat egin zuten gertatutakoa ospatzeko.

Lur planetan jendea pozik zegoen planeta salbatu zelako. Araujo eta zazhiy heroi bihurtu ziren.



Haiek ondo bizi baziren gu hobeto bizi gaitezen.